



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu, **Daily Food** enpresa gara. Enpresa hau lau bazkidek osatzen dugu eta **sozietate kooperatiba** bat da.

Taberna batean datza gure negozioa, baina ez da edozein taberna. Gure lehengaiak TOO GOOD TO GO aplikazioan erosten ditugu, eta hori da beste tabernengandik ezberdintzen gaituena.

TOO GOOD TO GO, orain dela denbora gutxi sortu zen aplikazio bat da. Aplikazio honetan, hainbat jatetxek, tabernak edo dendek parte hartzen dute. Bertan, egunean zehar eduki dituzten **soberakinak** salgai jartzen dituzte prezio merkeagoan eta edozeinek erosi ditzake.

Gure **weborriaren** bitartez, TOO GOOD TO GO aplikazioan erosi ditugun produktuekin, egin ditzakegun errezetak argitaratuko ditugu, eta bezeroek, inkesta baten bidez, gehien gustatzen zaizkien platerak aurreatu ahal izango dituzte. Boto gehien dituzten platerak egingo ditugu guk gero saltzeko. Baita ere **weborrian, egunero** salgai ditugun produktu eta menuak eskuragarri izango dituzte, erreserbarik egin nahi badute edo menua bertan ikusi nahi badute.

Gure helburua ere, **elikagaien xahuketari aurre egitea** denez, egunaren bukaeran soberakinak baditugu, eskaini egingo ditugu, horretarako gure taberna **itxi baino ordu bat lehenago**, produktu hauek eskuragarri egongo dira benetan behar dituztenentzat, esaterako, familia xumeentzat.